



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

**UDALBATZARRAK 2012ko MAIATZAREN 23an EGINDAKO EZ-OHIKO  
BILKURAREN AKTA**

2012ko maiatzaren 23an, Alkizako Udaletxean, eguerdiko 12.30etan, Jon Umerez Urrezola Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Umerez Urrezola

ZINEGOTZIAK : Jose M<sup>a</sup> Aranzabe Urruzola  
Jose Ramon Hernandez Cristobal  
Koldobika Jauregi Zinkunegi  
Ainara Sarasola Arsuaga  
Ainara Zurutuza Ilundain

Bere ezin etorria azaltzen dute: Uxue Etxebeste Eizagirre

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

1. Bere garaian Olaa baserriari loturik zeuden terrenoetatik, gaur egungo "finka deskontinuo lotetik", Larrebelarreta terrenoa segregatzeko baimena eskaera, A.A.
2. Alkizako Udalak Larrebelarreta, Urdanesi, Urdanesi-bazterra eta Mugarzako-kola-aldea terrenoak erosteko onespina ematea, hala bada.
3. Herri Ostatuaren zerbitzu publikoaren kudeaketaren lizitazio berriari hasiera ematea, hala bada.

.../...

**LEHENENGO PUNTUA**

**BERE GARAIAN OLA BASERRIARI LOTURIK ZEUDEN  
TERRENOETATIK, GAUR EGUNGO "FINKA DESKONTINUO LOTETIK",**



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

## **LARREBELARRETA TERRENOA SEGREGATZEKO BAIMENA ESKAERA, A.A.**

Ikusirik A.A. jaunak eginiko eskaera, non azaltzen duen bere garaian Olaa baserriari loturik zeuden terrenoetatik, gaur egungo "lote de fincas discontinuo" baten jabea dela eta hauetatik Larrebelarreta terrenoa segregatu nahi duela ondoren Alkizako Udalari saltzeko, dagokion segregazio baimena eskatuaz.

Ikusirik segregatu nahi den "Lote de fincas discontinuos-en" barruan Larrebelarreta terrenoaren deskripzioa ondorengoa dela:

*"Terreno argomal denominado Larrebelarreta, sito en la villa de Alkiza, en el Polígono cuatro, parcela ciento sesenta del Servicio de Catastro de la riqueza rústica, de ciento noventa y nueve áreas y doce centiáreas de cabida, que linda: Este, con pertenecidos de la Sociedad Izarra de Alquiza; Sur, con las peñas de Enaizpuru, y Oeste y Norte, con los de la caseria Aritzategui-garaikoa."*

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: A.A. jaunak eskaturiko, garai bateko Olaa baserriari loturik zegoen terrenotatik, gaur egungo "Lote de fincas discontinuo"-tik Larrebelarreta terrenoaren segregazio baimena ematea, ondoren Alkizako Udalari saltzeko. Terreno honek, 19912 metro dituelarik.

### **BIGARRENGO PUNTUA**

**ALKIZAKO UDALAK LARREBELARRETA, URDANESI, URDANESI-BAZTERRA ETA MUGARZAKO-KOLA-ALDEA TERRENOAK EROSTEKO ONESPENA EMATEA, HALA BADA**

Ikusirik Alkizako Udalak interesa duela, Eusko Jaurlaritzak ateratako diru-laguntza baten barruan, Ernio Gazume Kontserbazio eremu bereziko gunearen barruan dauden terrenoak erosteko.

Ikusirik P.A. eta A.A. jaunak interesa dutela Ernio Gazume barruan dauden hainbat terreno saltzeko. Konkretuki P.A. jaunaren jabetzakoak diren Urdanesi, Urdanesi-bazterra eta Mugarzako-kola-aldea terrenoak eta A.A. jaunaren jabetzakoak den Larrebelarreta terrenoa. Guztira, 10,23 hektarea



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

direlarik. Alkizako Udalak hektareako 5.000 euro ordainduko dituelarik, terreno jabeak diru kopuru honekin ados daudelarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Alkizako Udalak, P.A. jaunaren jabetzakoak diren Urdanesi, Urdanesi-bazterra eta Mugarzako-kola-aldea terrenoak erosteko onespena ematea. 41.218,5 eurotako kopuruan.

BIGARRENGOA: Alkizako Udalak, A.A. jaunaren jabetzako den Larrebelarreta terrenoa erosteko onespena ematea. 9.956 eurotako kopuruan.

HIRUGARRENA: Alkate-Lehendakaria den Jon Umerez Urrezola jauna ahalmenu, erabaki hau gauzatzeko dagozkion dokumentuak sinatzeko.

### **HIRUGARREN PUNTUA**

**HERRI OSTATUAREN ZERBITZU PUBLIKOAREN KUDEAKETAREN LIZITAZIO BERRIARI HASIERA EMATEA, HALA BADA.**

Ikusirik 2012ko urtarrilaren 9an S.R. andreari Herri Ostatuaren zerbitzu publikoaren esleipena egin zitzaioa.

Ikusirik 2012ko maiatzaren 9an Alkizako Udalak S.R. andreari zigor-espedita bat ireki ziola, martxoan eta apirilean zehar Alkizako Herri osatutaren zerbitzu publikoa ematean egin zituen hainbat hutsegiteagatik.

Ikusirik S.R. andreak Udaletxe honi jakinarazi diola Udalaren adostasunarekin Herri ostatuaren zerbitzu publikoaren kudeaketaren kontratua bertan behera utzi nahi duela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Alkizako Herri Ostatuaren errentamendu eta ustiapena, publizitaderik gabeko prozedura negoziatu bidez esleitzeko, ekonomiko eta administratibo baldintzen pleguari onarpena ematea.



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

**BIGARRENA:** Alkizako Herri Ostatuaren errentamendu eta ustiapena, publikidadarik gabeko prozedura negoziatu bidez esleitzeko, lehiaketaren lizitazioari onespena ematea.

**HIRUGARRENA:** Alkizako Herri Ostatuaren errentamendu eta ustiapena, publikidadarik gabeko prozedura negoziatu bidez esleitzeko, lehiaketaren lizitazioa martxan jartzea, lehenik, maiatzaren 31arte epea irekitzen delarik, interesatuek euren izena emateko Alkizako Udalean. Ondoren, interesatuei jakinaraziko zaielarik, Udalak emandako epearen barruan euren proposamenak aurkeztu ditzazkeela. Segidan, proposamen guztiak azterturik, egokienari esleituko zaiolarik.

*Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 13.00 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.*